

2016KO MEMORIA

ISTORIO KONPARTITUAK



noviasalcedo
fundación

enplegua, ekintzailletza, etorkizuna

LUIS ETA BEGO
ETORKIZUNeko LANA
NOVIASALCEDOREN ETORKIZUNA

1


ISTORIOAK:
ETORKIZUNA



MARIA ETA ANA
LEHEN ENPLEGUA
MARIAK LAN PRAKTIKAK EGIN DITU
ANA PRAKTIKETAN ARI DIREN GAZTEEN TUTOREA DA

2


LEHEN ENPLEGUA



ASIER, NANCY ETA GONZALO
ASIERREK GURE IKASTAROETAN PARTE HARTU DU
NANCY ETA GONZALO IRAKASLEAK DIRA

3

PRESTAKUNTZA



IBAI ETA NATALIA
IBAIK LAN ORIENTAZIOA JASO DU
NATALIA GAZTEEN TUTOREA DA

4

ORIENTAZIOA



NEREA ETA ERNESTO
NEREAK NAZIOARTEKO PRAKTIKAK EGIN DITU
ERNESTO PRAKTIKETAKO TUTOREA DA

5


MUNDUAREN BESTE ALDEAN



MAIDER ETA MARTA
MAIDERREK EKINTZAILETZA PROIEKTUARI EKIN DIO
MARTA PROIEKTU BATERA BATU DA

6


EKINTZAILETZA



DESDE LA PIZARRA/PUPITRE
ARBELETIK / IKASMAHAIK
IÑAKI: HAREN IKASLEEK LANALDIN PARTE HARTZEN
DUTE

7


ORIENTAZIOA IKASKETETAN



MARIJE ETA CRISTINA
GAZTE ENPLEGUAREN HAMARKADA
GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK

8


ISTORIOAK:
GARAPEN JASANGARRIA



WILSON ETA JAVIER
WILSON AFRIKAKO "HAMARKADA" BATZORDEAREN
KOORDINATZAILEA DA
JAVIER, NSF-K HEGO AMERIKAREKIN DUEN

9

EKINTZA
GLOBALA



BYEF - YIMBKANA
BILBAO YOUTH EMPLOYMENT FORUM
ENPLEGUAREN YIMBKANA - JARRI PROBAN ZEURE
BURUA!
GIZARTEAREKIN KONPROMISOA

10



NOVIASALCEDO SARIA
GAZTEEN LAN INTEGRAZIOAREN ARLOKO
BIKAINASUNARI
GIZARTEAREKIN KONPROMISOA

11



ANA ETA LAGUNTZAILEAK
BERRIKUNTZA SOZIALEAN ADITUA
LAGUNTZAILEAK / BABESLEAK
BERRIKUNTZA SOZIALA ETA LANKIDETZA


12



NOVIASALCEDOREN EMAITZAK
JARDUEREN EMAITZAK
EMAITZA EKONOMIKOAK

13


GURE HISTORIA 2016AN




NOR GARA, TALDEA
NSF OSATZEN DUTEN PERTSONAK ETA SAREAK
GURI BURUZ

14

EMAITZA JASANGARRIAK





ISTORIOAK: ETORKIZUNeko LANA

“NSF-K LANEAN DIHARDU ETORKIZUNA
EZAGUTZEKO ETA HARI AURREA HARTZEKO;
HARTARA, KANTITATEA ETA KALITATEA
LORTUKO DITUGU GAZTEENTZAKO
ENPLEGUAN”

LUIS CAÑADA NOVIA SALCEDO FUNDAZIOAREN PRESIDENTEA

Azalduko diguzu labor-labor memoria honen edukia?

Interesa duten aldeei zuzendutako memoria da, interesdunek ere modu aktiboan parte hartu dute, eta azken hamarkadako filosofiari jarraitzen dio. Jardueretan, haien baliabideak -finantza arlokoak barne-, gure denbora eta sormena inbertitzen ditugu, eta jarduera horien guztien emaitzari eman diogu garrantzia. Aurtun, 4.0 Enplegarritasuna proiektu berritzaileari egindako aipamenak daude. Proiektu horren bitartez, lotura kontzeptuala egin nahi dugu gazteen enplegarritasunak dituen beharizanen eta 4.0 enpresak dituen artean.

“Etorkizuneko lanak” zer kezka sortzen ditu, kezka bat sortzekotan? Lan nahikoa eta duina egongo al da?

Kezkatu egiten nau, bai asko kezkatu ere, gauza jakina delako ez dagoela nahikoa lanik guztiontzat ez Euskadin, ez Espainian, ez Europan, ez mundu osoan. Gainera, 2007tik aurrera enpleguaren kalitateak nabarmen egin du behera, enpresa paradigma aldatu delako krisiaren ondorioz eta ortodoxia neoliberalak aurrera

egin duelako.

Bestalde, badaude baikorrak izateko arrazoiak; izan ere, 2015ean berriz ere gora egin zuen lanean dabilen biztanleen tasa globalak, 2007koa gaindituz. Gehien- go historikoan gaude % 43,84ko zifrarekin, munduko biztanleria 6.676 milioitik 7.347 milioira igo den arren.

Lan mundua eta Heraklitoren ibaiko ura alderatzen baditugu, “ura ez da berbera ibaian bainatzen zaren aldiro”, biharko enplegua ere ez da izango gaurkoa bezalakoa. Nire ustez: a) 2030 Agendan (GJH), enplegurako eta bide onean aritzeko erreserba izugarria daukagu gizateriarentzat eta b) zientziaren eta teknologiaren aurrerapen hiperbolikoek enpleguaren alde jokatzeko dute. Azter dezagun, adibidez, orain 160 urte Maxwellek formulatu zuen elektromagnetismoaren kasua.

Hura gabe, gaur ez genuke dagoenaren % 95 edukiko. Eta galde diezaiogun geure buruari! Zer lan sor daiteke modu masiboan garatzen ditugunean Einsteinen erlatibitatearen eta grabitazio uhinen aplikazioak edo Planken, Schrodingerren eta Heisenbergen fisika kuantikoaren apli-

kazioak?

Bi gauza ziur: hezkuntza ereduan temaututa eta enplegua egun ulertzen dugun moduan ulertuta, EZ gara urrutira iritsiko. NSFk lanean dihardu etorkizuna ezagutzeko eta hari aurrea hartzeko; hartara, kantitatea eta kalitatea lortuko ditugu gazteentzako enpleguan. Horregatik jarri dira martxan Pegasus - Gazte Enpleguaren Hamarkada bezalako proiektuak.

Hitz egiguzu honi buruz: Garapen Jasangarrirako 17. Helburua: Itunak.

Lehenbiziko GJH izan beharko litzateke. Giza taldeetan dena da oso konplexua. Planetan pertsona asko gara, eta sarritan izaten ditugu interes kontrajarriak. Berrintasunezko ekonomia inklusiboa nahi badugu, bat egitea besterik ez daukagu: txikiak eta handiak; publikoak eta pribatuak; irabazi asmoak dituztenak eta gabekoak; berdinak eta desberdinak; ikastetxeak, lanbide heziketa, unibertsitatea eta enpresak. Hala, eskuzabaltasunez jokatu eta hausnartu ahal izango dugu, emaitzak konpartituz. Ildo horretatik doa lehen aipatutako 4.0 Enplegarritasuna.

HORREKIN LOTUTA - IKUSI WEBGUNEAN:
/ZER DA NOVIA SALCEDO FUNDAZIOA?/



ISTORIOAK: NSF-REN ETORKIZUNA

“GURE ERAKUNDEA
ERALDATZEA, MUNDUA
ALDATZEA”

BEGOÑA ETXEBARRIA NOVIA SALCEDO FUNDAZIOAREN ZUZENDARIA

Guretzat aldaketa urtea izan da 2016a. Gizarte guztia aldatzen ari den honetan eta gazteen enpleguaren krisi larria egiturazkoa bihurtzeko bidean den honetan, NSFn eraldatzen gabilta berriz ere. Eraldaketa horrek bide emango digu **4.0 Gazteen Enplegarritasunaren inguruko eredu propioa eraikitzeko, “Ezagutza partekatua sortzea” oinarri hartuta.**

Proiektuaren hazia neurri berean osatzen dute erakunde honek berritzeko duen bokazio handiak eta gazteei laguntzeko konpromisoak, elkarrekin lortzeko Nazio Batuek 2015ean formulatutako helburu nagusia: “Jarduera ekonomiko jasangarria eta guztiontzat lan duina sustatzea”, 8. helburua. Memoria honetatik ateratako datuei eta konpartituriko istorio pertsonalei erreparatuta, esan dezakegu azken urteetako emaitzarik onenetakoak erdietsi ditugula. Hala ere, jakin badakigu hori ez dela nahi-

koa. NSFra hurbildu den gazte kopurua- ren ondorioz, bikoiztu egin da arretarako tresna egokiak eskaintzeko daukagun gaitasuna. Horrek berrikuntzaren kudeaketan sakontzera behartzen gaitu.

Gazteek dituzten gaitasunen inguruko diagnostiko zehatzagoak behar ditugu, horiek garatzen lagundu ahal izateko. Hobeto ezagutu behar ditugu enpresak, euren kultura enpresariala eta pertsonak zelan kudeatzen dituzten (gardentasuna, zelan ulertzen duten enpresak gizartearen betetzen duen eginkizuna...)

Enpresa gehiago behar ditugu, gazteekin prestakuntza proiektu gehiago eta ho- beak zehazteko.

Zehaztasunez ebaluatu behar dugu ba- lio sozialek -euren familietan, hezkuntza erakundeetan eta enpresetan jasotako balioek- zenbateraino eragiten dioten gazteen enplegarritasunari. Gure fundazioaren esku hartzeak izan- dako emaitzen ebaluazioa hobetu behar

dugu. Bai gazteen, bai enpresen, bai fami- liako, enpresetako eta ikastetxeetako ba- lio sozialen inguruko datu guztiak behatu- ta, gure esku hartzea hobetzeko gakoak lortuko ditugu.

Aldi berean, errealistak eta aktiboki idea- listak gara. Horrelakoak gara munduak bizi duen iraultza handiaren jakitun ga- relako, baina aldi berean badakigu gure esku dagoela eskuzabaltasunez lagunt- zea irtenbide bideragarriak aztertzen eta proposatzen. Horretan ari gara.

2016AN:
MUNDUAN 200 MILIOI LANGABETU

ISTORIO KONPARTITUAK

HORREKIN LOTUTA - IKUSI WEBGUNEAN:
/ENPRESEN KONPROMISO HANDIAGOA/



ISTORIOAK: LEHEN ENPLEGUA

“ESPERIENTZIA GUZTIZ
ABERASGARRIA ETA
POSITIBOA”

MARÍA ESCUDERO LAN PRAKTIKAK EGIN DITU NSF-REN LAGUNTZAZ

Mariak Gizarte Langintzako Gradua ikasi du eta praktikak egiten ari da Servicios Sociales Integrados (SSI) kooperatiban.

Kaixo, Maria. Zein egoeratan zeunden Novia Salcedo ezagutu aurretik?

Deustun unibertsitate ikasketak amaitu berri nituen, Gizarte Langintzan graduatu nintzen. Unibertsitateko praktikez gain ez nuenez inolako lan esperientziarik, erabateko ziurgabetasun sentrazioa neukan lan etorkizuna zela-eta.

Nire ustez, ikasketa urteak bukatu dituen pertsona orok du edozein lan erronkari aurre egiteko gogoia, eta hala izan zen nire kasuan.

Ez zuen axola non hasi, lehen urratsa ematea eta lehen aukera lortzea zen garrantzitsuena.

Servicios Sociales Integradosen ari zara egiten praktikak. Zertarako zaizkizu baliagarri?

SSI kooperatiba bat da, ekimen sozialeko eta onura publikoko enpresak biltzen dituen.

Pertsona nagusiekin lotutakoa da nire zeregin nagusia; inor ez dela zaintzarako behar duen arretarik gabe geratzen egiaztatu behar dut. Niretzat ezezaguna zen alor sozialeko espezialitate hori.

Praktika hauek lan esperientzia guztiz aberasgarria eta positiboa bihurtu dira, ez soilik eskuratu ditudan ezagutza praktikoengatik, baizik eta lortutako heldutasun profesional eta pertsonalagatik.

Zer nabarmenduko zenuke praktiketatik?

Hainbat alderdi nabarmenduko nituzke. Adibidez, funtsezkoa iruditzen zait enpre-

sako tutorearen irudia. Babes handia ematen du alboan edukitzeak pertsona erreferente bat, edozein zalantza galde diezaiokezuna.

Bestalde, NSFko tutorea ere badago, praktikek ikasketa erreala eta kalitatezkoa eskaintzen dutela ziurtatzeko.

Zelan baloratzen duzu praktika aldian egiten duzuen prestakuntza?

Oso interesgarria iruditu zitzaidan, batez ere “Norberaren marka” eta “Jendaurrean hitz egitea” ikastaroak.

Uste dut baliagarriak izango zaizkidala etorkizunean, lanean etengabe bainago jendearekin harremanetan; komunikaziorako gaitasunak ezinbestekoak dira, beraz.

ANA SAGARDUY PRAKTIKETAN ARI DIREN GAZTEEN TUTOREA

Ana laborategiko arduraduna da Metallo Spain SL enpresan, ez-burdinazko metalgintzan aritzen dena.

Kaixo, Ana. Zer ekarpen egiten diote zure erakundeari praktiketan ari diren gazteek?

Metallo Spain SLn urte askoan hartu ditugu fundazioko bekadunak. Euren gaitetasuna, bizitasuna eta ikasteko gogoia urte askoko esperientzia duen lantaldean txertatzean, beti sortu da guztiontzat oso positiboa den eragin dinamizatzailea. Gainera, enpresarentzat modu bikaina izan da belaunaldien arteko erreleborako hautagai egokiak aurkitzeko.

Zure ustez, behar bezala jasotzen dute tutoretza?

Uste dut fundazioak urteko programa bete-betea eskaintzen duela bekadunari jarraipena egiteko eta laguntzeko, eta

enpresan, pertsonen garapenerako programetan eta lidergoa eta erantzukizuna bezalako gaiak lantzen dituztenetan sartu behar dugu bekaduna, bere garapenean lagungarri gertatzeko.

Zein da praktiketako gazte baten tutorearen esperientzia?

Izan dudan esperientziagatik, gazteek poz-pozik behar egiten dute euren lehen lan esperientzian.

Aukera handia da euren ibilbide profesionala ekarpen gehiago egin dezaketen horretara bideratzeko eta, batzuetan, ibilbidea birbideratzeko, hautu desegokia egin badute.

Tutoreen tailer batera joan zara. Uste duzu garrantzitsua dela tutoreek prestakuntza jasotzea?

Bai. Baina, egia esan, planteatu ere ez nuen egin tailerrera joateko gonbidapen mezua jaso arte.

ISTORIOAK: LEHEN ENPLEGUA

“EUREN GAZTETASUNA,
BIZITASUNA ETA IKASTEKO
GOGOA URTE ASKOKO ESPERIENTZIA
DUEN LANTALDEAN TXERTATZEAN,
BETI SORTU DA ERAGIN
DINAMIZATZAILEA”



ISTORIOAK: PRESTAKUNTZA

“ALOR DIGITALEAN ESPEZIALIZAZIO
HANDIAGOA LORTU DUT,
FUNTSEZKOA GAUR EGUN”

ASIER MENO GURE PRESTAKUNTZA IKASTAROETAKO PARTE HARTZAILEA

Asierrek Marketineko gradua ikasi du UPV/EHU eta marketin digitalean espezializatu da.

Kaixo, Asier. Zelan heldu zinen Novia Salcedora, zelan ezagutu gintuzun?

Unibertsitate ikasketak amaitu ostean, curriculum espezializazio eta esperientzia gehiagorekin osatu beharra neukan. NSFk aukera eman zidan prestatzen jarraitzeko zein lan esperientzia handiagoa lortzeko, eta, aldi berean, lan harremanen sarea handitzea lortu dut.

Community Management ikastaroa egin duzu. Zergatik aukeratu zenuen ikastaro hori?

Community Management ikastaroak sare sozialei buruzko ezagutza handiagoa eskaintzen dio nire lanbideari eta online munduan marka komunitatea zelan erai-ki, kudeatu eta administratu erakusten du. Horregatik erabaki nuen ikastaroa egitea, parada ematen duelako marketi-

naren alor horretan sakontzeko eta profil horrek nire lanbideari ematen dizkion aukerak gertutik ezagutzeko.

Marketin digitaleko ikastaroa ere egin duzu. Zer ekarpen egin dizu?

Marketina pasioa dut; beraz, ezin nuen galdu ikastaroa egiteko aukera. Ikastaro horren bitartez, alor digitalean espezializazio handiagoa lortu dut, funtsezkoa gaur egun. Hala, tresna berriak eta konpetentzia digitalak eskuratu ditut, eta horrenbestez garapen profesional handiagoa lortu dut.

Proiektu batean hasiko zara Waixo enpresan.

Proiektu erreal bat garatuko dut Waixo enpresarentzat. Oihal gainera inprimatze digitalean espezializatutako enpresa da, eta online tresnek pisu handia dute.

Aukera hau baliagarri egingo zait ekintzailetza alorrean esperientzia handiagoa lortzeko eta dakidana praktikan jartzeko diziplina anitzeko talde batekin batera,

helburu komun bat ardatz hartuta.

Azkenik, zer iruditzen zaizu egiten dugun lana?

Gazteoi aukera ematen digu eremu profesionalean prestatzen jarraitzeko. Hortaz, konpetentzia eta balio berriak eskuratu ditzakegu eta aukera daukagu inguruko enpresetan lan praktikak egiteko edo, zergatik ez, ekintzaile izateko. NSFko pertsonak hasieratik transmititzen dute zein den fundazioaren muina, enplegarritasunaren garapena sustatzea alegia; prozesu guztian laguntzen eta bideratzen gaituzte, zelanbait lana bilatzeko bide neketsuan argia eta esperantza ikus dezagun.

2016AN:
1.021 GAZTEK JASO DUTE PRESTAKUNTZA NSF-N

ISTORIO KONPARTITUAK

HORREKIN LOTUTA - IKUSI WEBGUNEAN:
/PRESTAKUNTZA/



ISTORIOAK: PRESTAKUNTZA

“PRESTAKUNTZAREKIN LOTUTAKO
LANA LORTZEN DUTE, AMAITU
ETA GUTXIRA”

NANCY FERNÁNDEZ Y GONZALO MÚGICA MARKETIN DIGITALEKO IRAKASLEAK



Nancy eta Gonzalo Kaleidoscopio marketin digitaleko agentziaren sortzaileak dira. NSFko marketin digitaleko ikastaroetako irakasleak dira.

Kaixo, bikote. Zer da Kaleidoscopio, zer egiten duzue?

Aholkuak ematen dizkiegu sustatzeko edo online tresnen bidez komunikazioa indartzeko beharra duten enpresei. Zerbitzu hauek eskaintzen ditugu: web diseinua, bilatzaileetako posizionamendua, sare sozialak, online publizitatea, enpresei laguntza ematea eta abar.

Modu osagarrian, gai horiei buruzko prestakuntza ikastaroak ematen hasi gara azken hilabeteetan.

Zer ekarpen egiten die gazteei marketinaren gainera prestakuntzak?

Nabarmen hazten ari den alorra da. Enpresek gero eta langile gehiago eskatzen dituzte digitalizazioarekin lotutako

postuetarako, izan barneko langileak edo izan kanpokoak, gu bezala.

Erakundeen barruan gero eta ohikoagoak dira orain gutxi sortutako postuak, hala nola community managerra, marketin digitaleko arduraduna edo SEOn edo SE-Men aditua.

Konpetentzia horiek oraindik ez daude guztiz ezarrita unibertsitateetan, gutxi-ka-gutxika lekua hartzen ari diren arren, master edo prestakuntza osagarri modura.

Gainera, zehar lerrokoak izatea eta enpresaren edozein jarduera alorretan baliagarriak izatea dute abantaila nagusi. Horregatik da garrantzitsua etengabeko prestakuntza.

Eremu honetan dena aldatzen da oso azkar, eta beharrezkoa da eguneratuta eta azaltzen diren berrikuntza guztiei adi egotea.

Eta zuei zer ekarpen egiten dizue alor

profesionalean?

Hasi berri dugun alderdi hau oso atsegina egiten zaigu. Batez ere, ikusten dugulako ikasleak pozik gelditzen direla ikastaroekin eta gauza berriak ikasten dituztela edo horretan sakontzen dutela. Batzuek lana lortu dute prestakuntza amaitu eta gutxira, eta horrek izugarri pozten gaitu.

Eta alor pertsonalean?

Bestalde, alor pertsonalean, oraindik eta gehiago eskatzen digu eta suspertu egiten gaitu, online marketineko alor bakoitzean dauden aldaketen berri izaten dugulako. Hau da, oso ondo datorkigu etengabe birziklatzeko eta eguneratuta egoteko.

2016AN:
GAZTEEN % 92,8 POZIK NSF-REN PRESTAKUNTZAREKIN

HORREKIN LOTUTA - IKUSI WEBGUNEAN:
/PRESTAKUNTZA/



ISTORIOAK: ORIENTAZIOA

“LAN ETORKIZUNARI BURUZ
HAUSNARTZEKO ETA
PENTSATZEKO BALIO IZAN DIT”

IBAI BASTERRETXEIA ORIENTAZIO ZERBITZUAREN ERABILTZAILEA

Ibai Enpresen Administrazioan eta Zuzendaritzan graduatu da UPV/EHUko Sarrikon. NSFra jo du orientazio bila.

Kaixo, Ibai. Zein egoeratan zeunden fundazioa ezagutu aurretik?

Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza ikasi nuen eta bi master egin nituen, lanaldi partzialeko beharra egin bitartean. Ondoren, kontratu mugagabea eskaini zidaten eta langile berriei prestakuntza ematen aritu nintzen. Horrela ibili nintzen urtebetez, karrera profesionala gehiago garatzeko nahia sentitu nuen arte. Orduan jo nuen Novia Salcedora.

Zer orientazio prozesu egin duzu?

Sartu bezain laster, elkarriketa pertsonala egin zidaten, nire profila eta taldean lan egiteko nuen gaitasuna hobeto ezagutze-

ko.

Hori oso abiapuntu garrantzitsua izan zen, alde batetik, neure burua hobeto ezagutzeko eta, beste alde batetik, fundazioak nire profilaren eta lan espektatiben berri izateko.

Prozesua burutu ostean, zelan baloratzen duzu?

Hasieran uste duzu indargune jakin batzuk dituzula, baina, hirugarren batek aitortu arte, ez zara benetan ohartzen izan dezakezun potentzialaz; hori da orientazio prozesuetako gauzarik interesgarriena. Nire kasuan, kirol arropetan espezializatutako denda baten lan egin nuenez, saltzeko eta bezeroarekin harreman zuzena izateko gaitasuna neukan.

Indartu beharreko alderdiei ere garrantzia ematen zaie, eta programa espezializatua goak egin daitezke.

Helburu profesionalak zehazten lagundu dizu?

Lan etorkizunari buruz hausnartzeko eta pentsatzeko balio izan dit, baita egin beharreko bidea marrazteko ere.

Arreta piztu didate ekintzailtzak eta Enplegua Sortzeko Eredu Berriak.

Gaur egun, lantalde baten partaide naiz eta enpresa proiektu bat garatzen ari gara.

NATALIA GARCÍA GAZTEEN TUTORETZAREN ARDURADUNA NSF-N

Natalia gazteen tutoretza prozesuen arduraduna da.

Kaixo, Natalia. Zer helburu ditu gazteei euren integrazio profesionalan laguntzeak?

Esango nuke asko direla, baina guztiak daude bideratuta gazteen enplegarritasuna hobetzera.

2016. urtean 650 gazteri eskaini diegu tutoretza, eta, gure prestakuntza praktikoko programen bitartez, euren lehen lan esperientzia izan dute.

Zein da hainbeste gazte lan merkatuan sartzeko gakoa?

Gazteen tutore gisa izan dudana esperientziaren arabera, gaztearen eta tutorearen arteko harremana da praktiken arrakastarako gakotako bat.

Gazteek oso modu positiboan baloratzen dute erreferente bat, harrera ona, eginkizun argia eta prestakuntza plan sendoa

izatea.

% 100eko motibazioa daukate, eta norbaitek erakustea, laguntzea, bideratzea behar dute, ikasi egin nahi dute...

Ausartuko nintzateke esatera, neurri handi batean, tutorearen lanaren esku dagoela praktiken arrakasta eta aprobetxamendua.

Zein da enpresetako tutorearen zeregina?

Batez ere bekadunei laguntza ematea eurentzat hain garrantzitsua den etapa horretan, gerta daitezkeen gatazkak konpontzea eta feedback ona ematea. Inportantea da bekadunei denbora eskaintzea, zalantzak argitzeko hurbil egotea eta ikas prozesuan laguntzea.

Zein da Novia Salcedoren zeregina gaztearen eta tutorearen arteko harreman horretan?

Novia Salcedon gazteen eta tutoreen arteko harremana sustatzen dugu: jarrai-

ISTORIOAK: ORIENTAZIOA

“NEURRI HANDI BATEAN,
TUTOREAREN LANAREN
ESKU DAGO PRAKTIKEN
ARRAKASTA ETA
APROBETXAMENDUA”

penerako fitxa batzuk bete behar izaten dituztenez, elkarrekin hitz egiteko espazio formalak sortzen dira.

Arreta jartzen dugu harreman horretarako zergati bakarra ez dadin izan programaren baldintza izatea, baizik eta harremana kalitatezkoa izatea nahi dugu.

Horregatik eta tutoreei zeregin horretan laguntzeko, praktiketan ari diren gazteen tutoreentzako tailerrak sortu ditugu.

Bertan, tutoretza ematean dituzten beldurrez eta zalantzez hitz egiten dute profesionalak, eta coachingeko tresnak ikasten dituzte, gaztearekin egunez egunkoa kudeatzeko. Gainera, tresna horiek baliagarriak dira, praktiketako gazteekin erabiltzeko ez ezik, baita talde profesionalak kudeatzeko ere.

Emaitzak oso onak dira. Esperientzia ematen diegu, gaztearen tokian jartzen dira eta esperientziak trukatzeko espazioa da.

2016AN:

454 GAZTEK PARTE HARTU DUTE ORIENTAZIO PROZESU BATEN

HORREKIN LOTUTA - IKUSI WEBGUNEAN:

/ORIENTAZIOA/

2016AN:

TUTOREENTZAKO TAILERRETAKO PARTAIDEAK % 100 ASEBETETA

HORREKIN LOTUTA - IKUSI WEBGUNEAN:

/PRAKTIKETA-GAZTEEN-TUTOREENTZAKO-TAILERRA/

ISTORIO KONPARTITUAK



ISTORIOAK: MUNDUAREN BESTE

“MAILA PROFESIONALEAN
BEHAR NUEN BULTZADA
EMAN DIT ESPERIENTZIA
HONEK”



ISTORIOAK: MUNDUAREN BESTE ALDEAN

“GOGO BIZIZ GABILTZA
PROGRAMAN PARTE HARTZEN
ETA ETENGABE
GAZTEAK JASOTZEN”

NEREA ALDEKOA PRAKTIKAK ARI DA EGITEN TXILEN, GLOBAL TRAINING PROGRAMAREN BITARTEZ

Nereak Publizitateko Gradua ikasi du. Nazioarteko praktikak egiten ari da Global Training programaren bitartez, La Familia SL sormen agentzian, Santiagon, Novia Salcedo Fundazioak kudeatuta.

Kaixo, Nerea. Zelan ezagutu zenuen fundazioa? Zein egoeratan zeunden?
Global Training programa zuekin egin zuen lagun baten bitartez ezagutu nuen Novia Salcedo Fundazioa. Unibertsitate ikasketak bukatu eta graduondoko bat nota onekin atera arren, sentitzen nuen ez nengoela behar bezala prestatuta lan munduan hasteko, esperientzia praktikoa falta zitzaidala. Beraz, informazioa eskuratu nuen Global Training programaren ezaugarrien inguruan eta fundazioak eskaintzen zituen aukeren inguruan. Aukera paregabean zela erabaki nuen. Zerrenda ikusi bezain laster argi

izan nuen: sortzaile lana Txileko publizitate agentzia batean.
Ez nuen zalantzarik izan eta eskaera egin nuen, eta handik aurrera dena bide onetik joan zen: fundazioaren hautaketa prozesuaren barruan egotea, agentziarekin egindako elkarriketa, ikastaroa eta, azkenik, abenturari ekitea.
Zer ekarpen egin dizu maila profesionallean?
Maila profesionallean behar nuen bultzada eman dit esperientzia honek. Ezagutza teknikoak eskuratzeaz gain, publizitate agentzia baten eguneroko dinamikan sartu naiz bete-betean eta konfiantza lortu dut, nire erantzukizunak areagotu ahala. Dударik gabe, orain askoz ere prestatuago sentitzen naiz.
Eta maila pertsonalean?
Maila pertsonalean, esperientzia zoragarria izaten ari da. Agentziako giroa, Santiagoko bizitasuna, jendearen izaera...

hori guztia ingurune kultural desberdin batean; ikuspegia zabaltzera eta bizitza ulertzeko modua zalantzan jartzera eramatzen zaitu.
Labur esanda, oso esperientzia aberasgarria ari da izaten eta eskerroneko hitzak baino ez ditut hau posible egin duten pertsona guztientzat.

ERNESTO OSSES NAZIOARTEKO PRAKTIKETAKO GAZTEEN TUTOREA DA

Ernesto Osses Txileko La Familia sormen agentziaren kudeatzailea da.

Kaixo, Ernesto. Zer iruditzen zaizu nazioarteko praktiken programa?
Txiletarrok jaio ginenetik entzun dugu munduaren amaieran bizi garela, guztien-gandik urrun gaudela eta gure kulturak ez duela identitaterik, kanpoko erreferenteen eragin handia izateagatik eta geurearen aberastasuna ez ikusteagatik.
Egoera aldatzen ari da denboraren poderioz, azken urteetan turismoari ateak zabaltzen dizkiogu, eta ikusi dugu gure gizartea aberastu duten milaka etorkin iritsi direla.
Ikuspuntu horretatik, truke kulturala funtsezkoa da komunikazioa garatzeko gizarte berri honetan. Horregatik da garrantzitsua Novia Salcedo Fundazioaren Global Training programa.
Praktiketako hainbat pertsona hartu

dituzue. Zelakoa izan da esperientzia?
Programaren bitartez, Euskadiko zortzi bekadun hartu ditugu eta gurekin gutxienez sei hilabetez aritu dira lanean. Aldi horretan, gure publizitate agentziako eguneroko lanean murgildu dira: komunikazio digitala eta kanpainak sortu dituzte gure bezeroentzat eta Txileko kontsumitzaileentzat.
Tarte horretan, bestalde, esperientziak trukatu, lagunak egin, Txile barruan bidaiatu eta gure kulturari buruz ikasi dute. Baina, zalantzarik gabe, garrantzitsuenak, gure lana aberastu dutela da, beste ikuspegi batekin, Txileko gazteek askotan izaten ez duten ikuspuntu global batekin.
Hori dela eta, gogo biziz gabiltza programan parte hartzen eta etengabe gazteak jasotzen, eurengan ere ikusten dugulako gogo bizia hona iristen direnean eta tristura sei hilabeteak bukatu eta alde egin dutenean. Are gehiago, batzuk itzuli egin

dira eta beste batzuekin egonaldia luzatzeko aukerak aztertu ditugu.
Global Training programa Euskadirentzat baliagarria izan da gazteak lanarekin elkartzeko, baina, horrez gain, gure erakundearentzat ere baliagarria izan da maila kulturean aberasteko eta gaur egungo munduaren ikuspegi freskoa edukitzeko.

2016AN:
94 GAZTEK EGIN DITUZTE NAZIOARTEKO PRAKTIKAK

ISTORIO KONPARTITUAK

HORREKIN LOTUTA - IKUSI WEBGUNEAN:
/NAZIOARTEKO LAN PRAKTIKAK/

2016AN:
NAZIOARTEKO 45 ENPRESAK HARTU DITUZTE PRAKTIKETAKO GAZTEAK

HORREKIN LOTUTA - IKUSI WEBGUNEAN:
/ENPRESAK/



ISTORIOAK: EKINTZAILETZA

“OSO GAITASUN
BALIAGARRIAK LORTU
GENITUEN TALDEAN
ZEIN MAILA
INDIBIDUALEAN
ERABILTZEKO”

MAIDER DUARTE

ENPLEGUA SORTZEKO EREDU BERRIAN PARTE HARTU DU
ENPRESA: LYNBER

Enplegua Sortzeko Eredu Berria (ESEB) ekintzaitza programa bat da; proiektu zehatz bat eskaintzen dugu bezeroaren enpresa batekin. Taldean egiten da, ekintzaitza esperientzia proiektu errealean gauzatzeko.

Maiderek Kimika Industrial Ingeniaritzako Gradua dauka.

Kaixo, Maider. Zer ekarpen egin dizu ESEBek?

ESEBen bitartez, proiektu batekin hasi genuen gure ibilbidea, proiektua bera ere gurekin batera sortutakoa, eta zenbait hilabete eta gero burutu zen, enpresa berri bat eratzean. Gaur egun ere enpresa horretan jarraitzen dugu lanean. ESEBek iraun bitartean, proiektuaren hasierako ideia zabaltzen joan ginen; era askotako hainbat jardueratan parte hartu eta hasierako gaitasunak hobetu genituen; eta, laburbilduz, honako mugarri hauek lortu genituen: merkatuaren eta

sare sozialen azterketa egitea, irudi korporatiboa sortzea, finantzazioa bilatzea, weba diseinatzea eta programatzea eta bi sari eskuratzea. Horrela, gure prestakuntza akademikoarekin lotutako gaitasunak eta zeharkako gaitasunak lortu genituen. **Zelan funtzionatu du taldeak?**

Taldea hasiera-hasieratik osatu zuten ESEBeko partaide gazteek eta Lynber enpresak. Lehenengo hilabeteetan, talde bietan bajak egon ziren eta, ondorioz, atzerapenak gertatu ziren. Enpresa garatzean arazo handi horri aurre egin behar izan genion, beraz. Gaur egun, ESEBeko hasierako taldetik pasatu ziren bost pertsonetatik bik egin dugu aurrera proiektuan.

Zer izan da positiboena eta zer negatiboena?

Gaitasun ugari garatzeko aukera edukitzea izan da positiboena, gaitasun horietako asko ezezagunak ziren hasiera batean guretzat, eta lana izateko aukera edukitzea, noski. Alde negatiboak, zalantzarik gabe, lehen aipatutakoa izan da:

lantaldean egondako bajak, argi eta garbi, hori izan baitaiteke proiektu sendo bat porrotera eramateko arrazoi nagusia. **Hitz egiguzu emaitzaz.**

Oso positibotzat jo dezakegu gure esperientzia. Hasieran esan bezala, ESEBen ekimenari esker eta garatzen ibili ginen proiektuari esker, oso gaitasun baliagarriak lortu genituen taldean zein maila indibidualean erabiltzeko: proiektuak kudeatzea, zehaztu gabeko arriskuak dituen lan ingurune batera egokitzea, ekintzaitza, sortzeko dugun gaitasuna ezagutzea eta taldean komunikazioa hobetzea.

HORREKIN LOTUTA - IKUSI WEBGUNEAN:
/ENPLEGUA SORTZEKO EREDU BERRIA/



ISTORIOAK: EKINTZAILETZA

“OSO POSITIBOA IZAN DA
DIZIPLINARTEKO TALDE BATEN
PARTAIDE IZATEA”

MARTA LÁZARO

ENPLEGUA SORTZEKO EREDU BERRIA PROGRAMA
ENPRESA: FAIR SATURDAY

Marta Zuzenbidean lizentziatua da. Fair Saturday izaera kulturalako eta bokazio globaleko mugimendu sozialaren proiektuan parte hartu du.

Kaixo, Marta. Zer ekarpen egin dizu ESEBek?

Aukera eman dit nire prestakuntzarekin loturarik ez duen baina betidanik interesa piztu didan alor batean praktikak egiteko. Lantaldean neu nintzenez Zuzenbidean lizentziatutako bakarra, alde batetik, para-da izan dut jasotako prestakuntzari esker gauzak hautemateko dudak modua ezagutzeko, eta modu autonomoan ikasten saiatu naiz ezezagunak zitzaizkidan alderdiak, baita teorian nire jakintza arlokoak zirenak ere.

Beste alde batetik, oso positiboak izan da diziplinarreko talde baten partaide izatea; izan ere, askotan nire gabeziak orekatzen zituzten Maite eta Leire lankideek eta egunero gauza berriak ikasten laguntzen zidaten, gaitasun teknikoak nahiz nire

euskara maila hobetzen adibidez.

Zelan funtzionatu du taldeak?

Niretzat taldea izan da praktiketako onena. Zorte handia izan da Leirerekin eta Maiterekin lan egitea, arazoren bat zegoenean edo babesa behar zenean beti zegoelako norbait laguntzeko, azaltzeko, osatzeko prest. Nire ustez, lan giroa ezin hobea izan da, eta, sarritan presioa jasan arren, irribarre batekin edo eroriz gero alboan norbait dagoela jakinik lan egitea oso garrantzitsua da, hori ez baita beti gertatzen.

Zer izan da positiboena eta zer negatiboena?

Niretzat positiboena, lehenik eta behin, lantaldea izan da, lanorduez harago uste baitut gai izan garela bulegoko giroa baino harantzago joan den giro atsegina sortzeko. Gainera, enpresa start-up bat izanik, askatasun eta erantzukizun handia izan dugu, eta horrek lan merkatuaren errealitatera hurbildu nau, bere ñabardura guztiekin.

Negatiboena, dudarik gabe, lortutako ordainsaria izan da. Nahiz eta lan merkatu-egindako lehen hurbilketa izateko ondo egon, hobetu beharreko helburua izan daiteke, aurrekontuak horretarako bidea emanaz gero.

Azkenik, bekaduna behin baino gehiagotan izan naiz, eta batzuetan hiru hilabetera alde egiten duzu, proiektuaren eta ikas prozesuaren momenturik onenean zaudenean.

Hitz egiguzu emaitzaz.

Nire kasuan, ESEBen parte hartzearen ondorioz, gustuko lan batean urtebeteko kontratua sinatu dut.

Laburbilduz, oso esperientzia gomen-dagarria izan da, soldata hobetzeko modukoa eta taldearekin askoz ere gehiagotan egingo nuke lan.



2016AN:
ESEB-EKO 6 PROIEKTUK EGIN DUTE AUERRERA, 2016AN

ISTORIO KONPARTITUAK

2016AN:
18 GAZTEK PARTE HARTU DUTE ESEB-EN PROIEKTUETAN, 2016AN

HORREKIN LOTUTA - IKUSI WEBGUNEAN:
/ENPLEGUA SORTZEKO EREDU BERRIA/



ISTORIOAK: ORIENTAZIOA IKASKETAK
AUKERATZEAN

“URTERO, HASTEN DENEAN,
NAHASMENA ETA URDURITASUN
SANOA ERAGITEN DITU:
ETORKIZUNeko LANBIDEA BILATU
EGIN BEHAR DA, BAI ONDO BILATU
ERE”

IÑAKI IRAOLA, IRAKASLEA MUNABEN,
ESKOLAN - LANALDIN PARTE HARTU DUEN IKASTETXEA

ARBELETIK

Ikuspuntu horretatik begiratzen die irakasleak ikasleei egune-ro-egunero. Ez da bakarra, baina bai berea, hor dago. Aurrean Batxilergoko 1. mailako ikasleak dituzunean eta aurki euren lanbi-de edo unibertsitate ikasketen funtsezko hautaketa egin behar dutenean, askotan galdetzen diozu zeure buruari: zelan eman laguntza hobea?

Orain urte batzuk shadowinga “asmatu” genuen, egun batez unibertsitateko ikasle baten itzal bihurtzea, unibertsitateko gradu bat “barrutik” ezagutzeko.

Gorago heltzea amestu eta pentsatu genuen egun batez langile baten itzal bihur zitezkeela: lana oso neketsua zen eta jarduera horretan parte har zezaketen gazteen kopurua % 20ra iritsi zen. Professional match izena eman genion jarduera horri.

Eta irakurleak ez dezala barrerik egin, Novia Salcedo Fundazioaren dei bat, Lanaldi programa azalduz, ametsa egia bihurtzen zuen maitagarria agertzea bezalakoxea izan zen. Ikasle guztiek jarduera horretan parte hartzeko aukera zuten eta, gainera, programa horrek beste balio batzuk ere lantzen ditu: autoezagutzarako jarduerak; hastapenak ekintzailatzaren kultura; gaitasun profesionalak ulertzea, langilearekin igarotako lanaldia askoz ere esanguratsua goa izan dadin; eta lortutako esperientziak bateratzeko jarduerak. Hiru urteko esperientziaren ondoren, esan dezakegu ekintza horrek funtzionatu egiten duela.

Zergatik? Ikasleak ezezaguna zaien mundu batean sartzen direlako: gaitasun profesionalen mundua eta ekintzailatza, askotan entzun dituzten hitzak dira, baina “azterketan ez denez sartzen”, ez dute benetan sinesten hain garrantzitsua denik. Inñigok ikusi zuenean enpresa txiki bat pikutara zihoala bi bazkideek ez zutela elkar ulertzen, konturatu zen komunikazioa oso garrantzitsua dela; Juanek egiaztatu zuen taldearen burua ez zela egiturak ondoen kalkulatzan zituena, baizik eta pertsonak ondoen bideratzen zituen; eta Tomas ohartu zen Ingeniaritzan ingelesa ondo jakin behar dela, “ze, aizu, han jarraibideak ingelesez daude eta hainbatek ingelesez hitz egiten du telefonoz”.

Esperientzia hori askori baliagarri zaie euren bokazio profesionala berresteko: Jorgeri adibidez, egun batez filosofia irakasle izateko aukera izan baitzuen, edo Alejandrori, letrekiko zaletasuna berretsi zuen-eta Juan hispaniar filologo eskarmentatuarekin lana konpartituta.

Batzuetan, uste baino gehiago balio dutela ohartzen dira, “nagusiak” zereginen bat egiten uzten dielako, esate baterako, minutu batean abokatu bulego batean sartzen den kasu bat laburtzea, onartzen duten edo beste bulego batera pasatzen duten ikusteko; edo egoitza leku desegokian dagoela irudituta eta ikusi dutelako handik hilabete gutxira negozioa beste lokal batera aldatu dutela eta, kasualitatez, deitu egin diete horren berri emateko eta gonbita egiteko egoitza berrian beste egun batez lan egiteko.

Egia bada irudi batek mila hitzek baino gehiago balio duela, egun batean har daitezkeen irudiek... hitz nahikotxok baino gehiago balio dute, are gehiago lan orientazioaren alorrean, bizipenekin oso lotua baitago.

Gaizkiak aurreikusi gabeko albo ondorioak ditu, ongiak ere bai. Programa honek ere baditu “Lanaldiren albo ondorioak”. Niretzat, bat eta oso garrantzitsua: urtero, Batxilergoko 1. mailan, hasten denean, nahasmen eta urduritasun sana eragiten ditu: etorkizuneko lanbidea bilatu egin behar da, bai ondo bilatu ere. Gogoa pizten zaie etorkizuneko unibertsitate ikasketak aukeratzera bideratutako jarduerari denbora eskaintzeko.

Uste dut Lanaldi etorkizuna aurreratzea dela.

HORREKIN LOTUTA - IKUSI WEBGUNEAN:
[/WWW.LANALDI.ES/](http://WWW.LANALDI.ES/)

IKASMAHAITIK

ESKOLAN - LANALDIN PARTE HARTU DUTEN IKASLEAK

Carmelitas Sagrado Corazon ikastetxeko Maitanek egun bat igaro zuen Deustuko Unibertsitateko Eider Inunciagarekin.

“Novia Salcedo Fundazioaren Lanaldi programari esker, egun bat igaro dut Deustuko Unibertsitateko nazioarteko proiektuen departamentuan. Departamentuaren zeregin nagusia mundu osoan truke programak antolatzea da, eta egunean zehar kideek azaldu didate zelakoak diren beste herrialdeekin dituzten harremanak, egunerokoan zer zailtasun izaten dituzten eta zelan egiten dieten aurre.

Horrez gain, azaldu didate zelan funtzionatzen duen programaren finantza arloak, hori ere interesgarria iruditzen zait eta.”

St. George´s English School ikastetxeko Adelak egun bat igaro zuen Ormazabal Protection & Automation enpresako Ainhoa Galdonarekin.

“Zuri, Ainhoa Galdona, eta astelehenean ezagutu nituen profesional guztiei eskerrak emateko idazten dizuet. Denak oso atseginak izan zirenen nirekin, asko ikasi nuen eta informazio asko jaso nuen. Hori zen behar nuena. Eskerrik asko, berriz ere.”

ESKOLAN - LANALDIN PARTE HARTU DUTEN LANGILEAK

Estibaliz Santos, Zuhazti Haur Eskolako langilea.

“Plazera izan da gure lan esperientzia konpartitzea eta lanean zer egiten dugun azaltzea. Gainera, ondotox dakigu zer zailtza izan ditzaketen eta zelan sentitzen diren, bizitzako unerik batean gu ere horrela sentitu garelako.

Espero dugu txikiekin igarotako egunaz gozatu izana eta hezkuntzari eta irakasle ikasketei buruz esan diogunak balio izatea erabakia hartzeko eta berak nahi duen lanbidea aukeratzeko.”

Laura Etxebarria, La Fundicioneko langilea.

“Ba oso ondo joan zen. Goiz intentsua izan zen: espazioa ikusi birtartean, azaldu genion zein den gure egitura eta zelan funtzionatzen eta kudeatzen dugun, antzoki gisa eta artistentzat zein arte eszenikoen prozesu artistikoetarako laguntza zentro gisa.

Euren interesari eta asmoei buruz hitz egin ziguten eta oso eztabaida interesgarria izan genuen. Espero dut Aitorrek eta Enarrek horri etekina ateratzea. Aitor batez ere oso motibatuta zegoen eta oso argi zeukan teatro ikasketak egin nahi zituela.

Halaber, tarte bat hartu genuen gai hauei buruz mintzatzeko: komunikaziorako teknologia, sentsibilizazio jarduerak eta programa paraleloak eta sormen lanen zein artisten bizitza.

Eta ikasleek izugarri eskertzen dute profesionalon esfortzua.”



2016AN:
717 GAZTEK IGARO DUTE EGUN BAT PROFESIONAL BATEKIN
503 PROFESIONALEK ESKAINI ZITUZTEN PLAZAK
29 IKASTETXE



ISTORIOAK: ORIENTAZIOA
IKASKETAK AUKERATZEAN

“AZALDU DIDATE EGUNEROKOAN
ZER ZAILTASUN IZATEN
DITUZTEN ETA ZELAN
EGITEN DIETEN AURRE”

PEGASUS PROIEKTUAREN KOORDINATZAILEA MARIJE NOVO

Marije Pegasus - Gazte Enpleguaren Hamarkadaren Adierazpenerako Nazioarteko Kanpaina proiektuaren koordinatzailea da.

Kaixo, Marije. Kontatuko diguzu zer den Pegasus proiektua?

Pegasus - Gazte Enpleguaren Hamarkadaren Adierazpenerako Nazioarteko Kanpaina proiektua lankidetzaz publiko-pribatuaren ekimena da, 2013an NSFk sortu eta sustatu zuen, eta 2015eko ekainaz gerotik Espainiako Gobernuak gidatzen du. Proiektuaren bitartez, Garapen Jasangarri-rako Helburuetako batzuk lortu nahi ditu NSFk, 8. helburua bereziki: lan duina eta hazkunde ekonomikoa guztiontzat. Ekimen hori egia bihurtzeko, elkarlanean aritu nahi dugu gobernuarekin, enprekin, nazioarteko erakundeekin, gizarte zibilarekin eta herritarrekin. Gaur-gaurkoz, 86 herrialdetako 582 erakunderen babesa daukagu.


Zer dira Garapen Jasangarriko Helburuak?

2015eko irailean, Garapen Jasangarriko 2030 Agenda onartu zuen Nazio Batuen Batzar Nagusiak.

Agenda horrekin, aukera paregabea dauka guztiak aldatzeko eta milioika eta milioika pertsonaren bizitza hobetzeko.

Gutako bakoitzak zerbait egin behar du "inor ez dadin atzean gelditu" ("no one is left behind").

Novia Salcedo Fundazioak ere bai. Eta ondoen egin dezakeen alorrean egin nahi du: gazteen enpleguaren alorrean. Gainera, hori da Garapen Jasangarriko 17 Helburuak (GJH) azkarrago betetzeko giltzarrietako bat. Hori dela eta, epe luzera daukagun antolatzekeko estrategiaren barnean, ekarpena egin nahi dugu ikuspegi global hau lortzeko: 2030erako guztiontzat enplegua, babes soziala eta lan duina izatea.



2016KO MUGARRIAK GAZTE ENPLEGUAREN HAMARKADARAKO KANPAINAN:

- Kanpainari buruzko hitzaldi berezia ECOSOC Youth Forum 2016ko osoko bilkuran eta **side event** bat antolatzea honako hauen partaidetzarekin eta lankidetzarekin: UN Global Compact, INJUVE, NBGP, LANE, SDG's Funds eta OIJ.
- Latinoamerikako eta Karibeko Eskualde Batzordea eratzea.
- Kanpaina aurkeztea **Eusko Legebiltzarreko** Enplegu Batzordean.
- Zirriborro bat idaztea, **Espainiako Parlamentuan** kanpaina aurkeztu eta ezartzen.
- **Novia Salcedo Fundazioak** Kontsulta **Estatus Bereziaren** aintzatespenez jaso izana Nazio Batuen ECOSOCen.
- Kanpaina Batzordea **Gazteen Enpleguari** buruzko gailurrean egon izana, **Lanaren Nazioarteko Erakundearen Konferentziaren** 105. bileran. 2016ko ekainean, Genevan.
- Kanpaina Batzordearen **2. bilera**, Madrilen, 2016ko uztailaren 21ean.
- Kanpaina aurkeztea 2016ko urrian, **gazteen enpleguaren Afrikako I. gailurrean** (YÂOUNDE, Kamerun).
- Kanpaina aurkeztea 2016ko urrian, **gazteen demokraziaren eta ekintzailetzaren Iberoamerikako I. gailurrean** (Bogota, Kolonbia). **Enpresen XI. topaketa iberoamerikar**ren parte hartzea, Cartagena de Indiasen (Estatu buruen eta Iberoamerikako Gobernuen gailurra).



CRISTINA GALLACH

NAZIO BATUEN KOMUNIKAZIO ETA INFORMAZIO ARLOKO IDAZKARI NAGUSI ADJUNTUA
2015-2017

Zelan baloratzen dituzu **Gazte Enpleguaren Hamarkadarako Kanpaina bezalako proiektuak**?

Oso modu positiboan. Uste dut haren ekarpena ezinbestekoa eta garrantzitsua dela. Gizarte zibilak ahalik eta bitarteko gehien mobilizatzeko egindako esku hartzeen adibide zehatzak dira, eta guztiontzat askoz ere mundu hobeaz lortzeko eraldaketak lortzea dute helburu. Gazteen enplegua hobetzeak, aldi berean maila makroekonomikoko eta mikroekonomikoko prozesuak uztartzea eskatzen du. Gainera, hobekuntzen zati handi bat epe ertainera eta luzera nabaritu da. Hori dela eta, uste dut erronka handi honi ekiteko modu ona dela mobilizatzeko, egungo egoera aldatzeko eta emaitzak lortzeko "hamarkada" baten adierazpena egitea. Hala ere, eragina izateko, mobilizazioak globala izan behar du: gizarte zibilak, sektore pribatuak eta gobernuak hartu behar dute parte. Beharrezkoa da guztiek ardurak hartzea eta konprometitzea Hamarkadaren adierazpenarekin eta horrek dakarren lanarekin. Horrela eginez gero, eraldaketa garrantzitsuak finkatzea lortuko du Gazte Enpleguaren Hamarkadak.

Era berean, uste dut Hamarkada sustatzeko ekintzetarako ona izan daitekeela sinergiak bilatzea helburu osagarriak bultzatzen dituzten nazioarteko beste proiektu batzuekin. Adibidez, Lanaren Nazioarteko Erakundeak (LANE) eta NBERen idazkari nagusiak gazteen gaitetarako duen mandatari bereziaren bulegoak konpromiso handia erakutsi dute gazteen langabeziari irtenbideak bilatzen. Euren ideietako batzuek eragin positiboa izan dezakete NSFren eta Hamarkadaren lanean. Iruditzen zait esfortzua egin beharko litzatekeela Hamarkadaren lana aldaketa global baten barruan kokatzeko eta horrela gazteen enplegua hobetzen laguntzeko nazioartean.

Zelan aterata dezakete etekina Nazio Batuek gizarte zibilaren ekintzetatik? Eta NSFren ekintzetatik bereziki?

Lehenik eta behin, gizarte zibilak 2030 Agenda zabaltzen lagundu dezake eta lagundu behar du. Zenbat eta gehiago ezaugarri, zenbat eta kontzienteago izan aldaketarako duen indarraz eta agenda aplikatzeko hartutako konpromisoez, orduan eta hobeto guztiontzat. Gobernuak onartu egingo dute, koordinatzeko egi-

ISTORIOAK: EKINTZA GLOBALA

"GIZARTE ZIBILAK 2030

AGENDA ZABALTZEN

LAGUNDU DEZAKE ETA

LAGUNDU BEHAR DU"



ISTORIOAK: EKINTZA GLOBALA

**“HAZKUNDE EKONOMIKO IRAUNKORRIK EZ IZATEA DA
AFRIKAREN ARAZO NAGUSIA”**

WILSON FORBI AFRIKAKO BATZORDEA - WWW.YOUTHEMPLOYMENTDECADE.ORG

Gazteen egoerari eta lan aukerei buruz hitz egin digu Integrated Youth Volunteer Fundazioaren zuzendari nagusi eta Gazte Enpleguaren Hamarkadaren Afrikako Eskualde Batzordearen koordinatzaile Ngwa Wilson Forbik.

Kaixo, Wilson. Zein dira gazte afrikarrek gainditu behar dituzten ozto nagusiak lan merkatura sartzean? Gaur egun, Afrikako lan merkatuak duen arazo larriena hazkunde ekonomiko iraunkorrik ez dagoela eta enplegurik ez dela sortzen da, biak ere pobrezia murrizteko eta bizi baldintzak hobetzeko funtsezko alderdiak. Hauek dira beste erronka batzuk: trebetasunen egiturazko defizit etengabea, oso bestelakoak direlako lan eskatzaileek hezkuntza sisteman jasotako trebetasunak, lan merkatuak eskatzen dituen aurrean; sortzen ari diren industrien izaera; enpresa batzuen itxiera; eta

epe laburrera egiten diren laneko esku hartzeak, hain zuzen ere, epe luzera irtenbideak aurkitzeko estrategia iraunkor argirik ez dutenak. **Zein dira gazteen langabeziaren arazoari aurre egiteko erronka nagusiak?** Lehenik eta behin, hezkuntza eta trebetasunen garapena. Afrikako gazteen langabeziak dituen erronkak ikusirik, egokia litzateke hezkuntzaren inguruko eta gazte afrikarren trebetasunen inguruko ebaluazioa egitea, hezkuntza eta trebetasunak sustatzeko asmoz egin diren politikak berriz aztertuta. Hezkuntzaren eta Afrikako gazteen trebetasunen gaineko ikuspegi kuantitatiboa ere eskaintzen dute erronka horiek, Garapen Jasangarrirako Helburuetatik zortzigarrena lortze aldera, eta horrek politiketan hainbat ondorio eta inplikazio dakartza. Hemen, hauxe da ondorio nagusia: gazteek eskola emaitzetan dituzten desberdintasunei heldu ezean,

oso gaitza da lan merkatuan egiten diren esku hartzeek eraldaketa eragitea. **Zentzu horretan, zer ondorio ekarri ditu YEDIA (Gazte Enpleguaren Hamarkada Afrikan) Batzordea eratu izanak?** YEDIAri esker, enplegu sorrerara bideratutako programak agertu dira, batez ere kontinenteko gazteei zuzenduta. Programa horien helburua da, alde batetik, giro aproposa sustatzea gobernuak eta sektore pribatuak lanpostuak sor ditzaten eta, beste alde batetik, jasotako trebetasunak eta ezagutzak garatzea gazteen enplegua haz dadin.

2016AN:
AFRIKAKO 36 HERRIALDETAKO 153 ERAKUNDEK BAT EGIN DUTE GAZTE ENPLEGUAREN HAMARKADAREN ADIERAZPENERAKO KANPAINAREKIN

ISTORIO KONPARTITUAK



ISTORIOAK: EKINTZA GLOBALA

**“LEHEN EZ GENEUKAN
IKUSPEGI GLOBALA ESKAINI
DIGU BATERA LAN EGITEAK”**

JAVIER KRAWICKI TUPRIMERAPEGA.CL - TUPRIMERLABURO.COM.AR
NAZIOARTEKO ALIANTZA

Javier Tupprimerapega Txileko enpresa sozialaren sortzaileetakoa da. (pega: Txileko hizkera arruntan, lana)

Kaixo, Javier. Zein balio dauka Novia Salcedoren eta Tupprimerapegaren arteko aliantzak?

Ohere handia da NSFekin batera aritzea, profesionaltasun handiz egiten baitu lan. 2016an, lan asko egin ditugu batera: Gazte Enpleguaren Hamarkadaren Adierazpena, BYEF, Global Training programa eta beste hainbat proiektu. Oso sinergia sendoa sortu dugu batera jorratzen ditugun proiektu guztietarako. Gure erakundeari on egiten dio Novia Salcedo Fundazioaren moduko aliatu bat izateak. Gazteen enpleguaren alorrean NSFk hartzen duen konpromisoa eta lidergoa berreskuratu ditugu. Erakundeen batuketek batu beharrean biderkatu egiten duten testuinguru honetan, NSF beti dago prest sareak eta aliantzak sortzeko, mundu

mailan egiten diren lanak sustatzen dituzten heinean.

Zer ekarpen egiten dizue NSF bezalako aliatuekin lan egiteak?

NSFren, TuPrimeraPegaren eta TuPrimerLaburoren arteko aliantzak indartu egiten ditu erakunde bakoitzak bere herrialdean garatzen dituen praktika onak. Arrakasta kasuak errepikatzen ditugu eta horrela proiektu desberdinen artean sinergiak sortzen dira.

Lehen ez geneukan ikuspegi globala eskaini digu batera lan egiteak, eta aukera ematen digu mundu mailako foro garantzitsuetan parte hartzeko.

Zer iruditzen zaizue NSF 2030 Agendan egiten ari den ekarpena?

Ziur gaude NSF ekarpen handia egiten ari dela 2030 Agendan; eta, Pegasus proiektua koordinatzen duenez, irizpideak, lanak eta jarduerak norabide berean jartzea eta gazteen enplegarritasuna hobetzen duten politika publikoak sortzea

lortuko du.

Eskertzekoa da lanerako konpromisoa, erantzukizuna eta, batez ere, Bilboko eta eskualdeko enpleguan eragin positiboa duten proiektuak etengabe sortzea.

Zein erronkatan ari zarete lanean epe laburrera begira?

Argentinan “Tu primer laburo” zabaltzea. Txilen, 20.000 lanpostu sortu ditugu bi urtetan; 10.000 gazteri lagundu diegu lan merkatuan sartzen. Eta 2017rako, Txile-ra eta Argentinara begira, gure helburua 80.000 lanpostu sortzea da eta lana lortzea 80.000 pertsona baino gehiagorentzat. Izan ere, bi adierazle desberdin dira: gauza bat da lanpostuak sortzea eta beste bat gazteak lanean hastea. Guk 20.000 lanpostu sortu ditugu, baina 10.000 besterik ez ditugu kokatu.

2016AN:
582 ERAKUNDE BATU DIRA GAZTE ENPLEGUAREN HAMARKADARAKO KANPAINARA

HORREKIN LOTUTA - IKUSI WEBGUNEAN:
[/WWW.YOUTHEMPLOYMENTDECADE.ORG/](http://WWW.YOUTHEMPLOYMENTDECADE.ORG/)



ISTORIOAK: GIZARTEAREKIN
KONPROMISOA

HELBURUA: PROIEKTU GLOBAL BATEN OINARRIAK FINKATZEA KALITATEZKO ENPLEGU DUINA SORTZEKO

BYEF BILBAO YOUTH EMPLOYMENT FORUM '16

Novia Salcedo Fundazioak antolatutako III. Youth Employment Forumek nazioarteko erakunde ugaritako ordezkariak bildu zituen Bilbon. Kalitatezko enplegu duina sortzeko proiektu global baten oinarriak finkatzea izan zuen helburu.

2016an, 2030 Agendan aurrerapenak gertatzeko bi alderdi oinarritzko batzean zentratu da III. BYEF. Alde batetik, agenda horrek proposatzen dituen xede nagusiak ezagutzea, bereziki gazteen enpleguari dagokionez, eta agenda zelan gorpuztu daitekeen jardura zehatzetan. Beste alde batetik, talde lanari dagokionez, gizarte zientzien bermea duen metodologia batekin lan egitea, 2030 Agendaren helburuak lortzera bideratutako organizazioak eraikitzeak. Aurkezpen akademikoa eta ariketa praktikoa eginez, batera lan egin zuten fundazioak gidatutako Gazte Enpleguaren Nazioarteko Kanpainarekin bat egin duten erakundeetako zortzi ordezkariak, agenda gorpuzteko hurrengo urratsak zelan finkatu behar diren aztert-

zeko asmoz.

Agendaren helburuen artean, garapen jasangarrirako 8. puntua -lan duina eta hazkunde ekonomikoa- izan zen foroaren ardatza. Izan ere, "ziklo ekonomikoek eragin izugarria dute" gazteen langabeziaren arazoan, **Jose Andres Blasco Enplegu eta Laneko sailburuordeak** adierazi zuenez. Euskadin, esate baterako, gazteen langabezia % 23koa da. Espainiako txarrena ez bada ere, "oso tasa altua" da eta Europako batez bestekoa baino hamar puntu gorago dago. Bestalde, ez da ahaztu behar gazteen langabeziak arrisku bikoitza dakarrela gizartearentzat, batetik, gazteentzat arazo psikosoziala dakarrelako eta, bestetik, sistema ekonomikoari mehatxu izugarria egiten diolako, gazte horien hezkuntzan inbertitutako dirutik gutxi itzultzen baita, lan merkatuan sartu ezinik dabilzako. Foroaren helburuek indarrak batzea eragiten dute eta, horretarako, "unibertsitateak indarrak batu behar ditu kalitatezko enplegua sortzeko", **Maite Zelaia UPV/**

EHuko Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko erretoreordeak adierazi zuenez. Halaber, unibertsitatean balioa eman behar zaio prestakuntza dualari, ikasleak ekoizpen prozesuan integratzen laguntzeko. **Nazio Batuen Garapen Programetako (NBGP) politiketan aditua den Marta Pedrajasen** arabera, garrantzitsua da sarean lan egitea, eta ez dugu begien bistatik galdu behar zerk bizkortzen duen agendaren eragina: genero berdintasuna eta enplegua, batez ere gazteena. Michael West irakaslea, nazioarteko aditua berrikuntza taldeetan eta erakundee-tan, izan zen foroaren moderatzailea, eta nazioarteko kanpainaren lantaldeak bere asmoak zehaztu eta hurrengo urteetarako helburu nagusiak ezartzen lagundu zuen, horrela irtenbide eraginkor bat bilatzeko egoera larri honi.



YIMBKANA GAZTEEI ZUZENDUTAKO EKINTZA "JARRI PROBAN ZEURE BURUA" ENPLEGUAREN

Abenduaren 15ean, ehun bat gaztek parte hartu zuten Novia Salcedo Fundazioak antolatutako Enpleguaren Yimbkanan. Ekitaldia Bilboko Yimby aretoan egin zen eta arrakasta erabatekoa izan zen. Ez soilik deialdiagatik, baizik eta giro atsegina jaun eta jabe izan zelako une oro.

Jolas modura, **gazteek hainbat proba egin zituzten, bakarka edo taldean, helburua enplegarritasuna sustatzea izanik. Hala, euren indarguneak eta hobetu beharrekoak ezagutzeko aukera izan zuten.**

Probak askotarikoak izan ziren:

- Ezagutu zure indarguneak.
- Sormena martxan jarri.
- Harreman sarea eratu.
- Izan desberdina eta nabarmendu zaitez.
- Esan zer dakizun egiten.
- Taldean eraiki.
- Aukerak aztertu.
- Indartu zure ekimena.



"Ez baduzu amore ematen, beti lortuko duzu arrakasta."
-"Egia bihurtu zeure ametsak."
-"Helburuak ez, baizik eta horiek lortzeko bideak aldatu."
Horiek izan ziren gazteek, sormena eta motibazioa aplikatuta, probetan bota zituzten mezueta bazuak. Probetako erronkak bat datoz Novia Salcedok gazte guztiei eskainitako enplegarritasun tailerretan darabiltzan kontzeptuekin. Egun hartan, inguru informalago batean egin zuten. Argazkietan ikus daitekeen bezala, enplegua bilatzea dibertigarriagoa izatea lortu zuten.



**Premio
noviasalcedo
a la excelencia**
en la integración profesional de los jóvenes

ISTORIOAK: GIZARTEAREKIN KONPROMISOA

**HELBURUA: AITORTZA ETA MOTIBAZIOA EMATEA
GAZTEEN INTEGRAZIO PROFESIONALAREN ALDE
LANEAN ARI DIRENEI ETA GIZARTEA BEHARRIZAN
HORRETAZ SENTSIBILIZATZEA**

VII. EDIZIOA

NOVIASALCEDO SARIA

GAZTEEN LAN INTEGRAZIOAREN BIKAITASUNARI

- Sari horrekin, Novia Salcedok helburu hirukoitza lortu nahi du:
- Aintzatespena eta motibazioa ematea nazioartean gazteen integrazio profesionalaren alde lanean ari diren pertsonen, enpresei, administrazio publikoei eta erakundeei, euren lorpenak bikaintasunaren eredu gisa zabaltzen baitituzte.**
- Gizartea, gazteak lan munduan integratzeko beharrianaz sentsibilizatzea eta horrek ongizate gizartean dakartzan ondorioez.**
- EAE nazioarteko sari garrantzitsuen artean kokatzea.**



Arriaga Antzokia apain-apain jarri zen gazteen enpleguaren alde, gazteekin egindako lanagatik nabarmendu diren lau saridunak hartzeko. Novia Salcedo Fundazioak lortu zuen hori, gazteen integrazio profesionalaren arloko bikaintasunari emandako sari VII. edizioan. Hauexek izan ziren saridunak: Jordi Albareda bilbotarra pertsonen kategorian, Emtesport enpresen kategorian, Fundación Paraguaya erakundearen kategorian eta Victoria Camps Ad Honorem kategorian. Felipe VI.a erregearen eskutik jaso zuten laurak egindako lanaren aitortza. Felipe VI.a lehen aldiz joan zen sari banaketara errege denez geroztik, eta gazteentzako lan duina defendatu zuen bere hitzaldian. "Guretzat erronka nagusi dira enplegua, lanpostuak sortzea eta herritarrak lan munduan sartzea. Lan faltak gazteei eta emakumei eragin die batez ere."

Saridunak

Jordi Albaredak, hitzaldi benetan hunki-

garrian, gaur egungo gizartean oso azkar bizi garela azpimarratu zuen eta kultura bigarren mailan gelditzen dela. Bestalde, Fundación Paraguaya Martin Burtek, gazteei zelan lagundu ahal zaien aipatu zuen, euren beharrianaz erantzunda eta "eginez, salduz eta irabaziz ikasi" metodoa erabiltza.

Emtesporteko Marta Sanchezek eta Matxalen Laskibarrek langabeziaren zifra larriaz hitz egin zuten, eta premiazkoa iritzi zioten arazoa arintzeko esku hartzeari, oinarritzko baldintza baita justizia sozialak aurrera egin dezan.

Victoria Camps filosofoak gazteria eta enplegua berradiskidetzak lana duin bihurtzen lagunduko duela aipatu zuen. Horrez gain, hezkuntza goretsi zuen kultura indibidualista aldatzeko tresna gisa.

2016AN, SARIEN VII. EDIZIOAN:

**1.000 PERTSONA JOAN ZIREN SARI BANAKETARA
OIHARTZUN HANDIA ETA KOMUNIKABIDEETAN PRESENTZIA**



FELIPE VI.A ERREGEA



"Zalantzarik gabe, enpleguaren gaiak mugak goinditzen ditu eta mundu mailan eragiten die gazteei. **Novia Salcedok oso argi ikusi du hori eta, bere ekimenez eta Gobernuak babestuta, Gazte Enpleguaren Hamarkadarako Nazioarteko Kanpaina jarri da martxan.** Kanpainaren funtsezko oinarrietan adierazten den bezala, helburua hausnarketa da, pentsamendua eta ekintzak bultzatzeko nazioarteko mugimendua sortzea, mundu guztiko milioika gazte bizi duten langabezia egoerari adostutako ideiak, edukiak eta irtenbideak bilatzeko. Jakingo duzue, xedea Nazio Batuen Batzar Nagusiak Gazte Enpleguaren Hamarkada izendatu dezala da, horrek aukera ematen baitu erakunde eta herrialdeen eraldaketa ekonomikoa gauzatzeko -aurreratu dudan bezala eta errepikatu egingo dut-, balio eta enplegu gehiago sortze aldera, berrikuntza, ekintzailatza, teknologia berriak eta zientzia bultzatzeko misioarekin bat. Bestalde, gazteen talentuaren aldeko apustua egiten duten ekimenak bultzatu behar dira. Zorionak Novia Salcedo Fundazioari ekimen bikain honengatik."

SARIDUNAK:

Jordi Albareda [Pertsonen kategoria](#)



Bertute zibikoak, jarrera etikoak eta solidarioak sortzeko tresna gisa gaur egungo gizartean duen dimentsio kulturalarengatik, eremu profesionalean balioak ikusgai bihurtuz eta horretarako marketen digitaleko erreminta berriak erabiliz.

Fundación Paraguaya [Administrazio publikoak / erakundeak / GKEak](#)



Instituzio horrek nazioarteko aliantzen sare handia eta Afrikarekin hainbat lankidetzak proiektu ditu. Saria jaso du bere hezkuntza ereduagatik, pobrezia deuseztatzeko borrokarari beste modu batean ekiten diolako eta "eginez, salduz eta irabaziz ikasi" metodologia erabiltzen duelako. Hezkuntzako ikuspegi berritzaile horrekin, besteengandik desberdindu eta lortu nahi dute ahultasun egoeran dauden gazteek beharrezko gaitasunak eta ezagutzak eskuratzea, landa eremuko enpresa propioak abiatu ditzaten, nekazaritzaren eta abeltzaintzaren sektorean lan duina izan dezaten edo ikasten jarrai dezaten.

Emtesport [Enpresen kategoria](#)



Emakume enpresariak zuzendutako enpresa horretan langileen % 100 gaztea da, hazten ari den sektorean dihardu -kirolean hain zuzen ere-, garapen ekonomikorako gaitasun handia du eta heziketarako eta bizitza osasungarriko balioak sustatzen ditu. Azpimarratzekoa da enpresako langileek prestakuntza jasotzeko eta eguneratzeko egiten duten esfortzua.

Victoria Camps [Ad Honorem](#)



Espainiako filosofo garrantzitsuenetarikoa izateagatik. Kezka eragiten dio "balio liberalek eta askatasunaren kontzeptu sakona zelan egin daitezkeen bateragarri lankidetzarekin, partaidetzarekin eta, funtsean, gizarte kohesioa eta komunitatea sortzen duen guztiarekin". Horretarako, hezkuntza giltzarria da kultura indibidualista bidezko kultura bilakatzeko, non norbanakoak lankidetzan aritzeko gai diren.

HORREKIN LOTUTA - IKUSI WEBGUNEAN:
[/WWW.PREMIONVIASALCEDO.ES/](http://WWW.PREMIONVIASALCEDO.ES/)



ISTORIOAK: BERRIKUNTZA SOZIALA

**PROFILING: GAZTEA EZAGUTZEKO
TRESNA KUANTITATIBOAK ETA
KUALITATIBOAK EDUKITZEAN
OINARRITZEN DA, HAREKIN
MODU PERTSONALIZATUAN ETA
ERAGINKORREAN LAN EGIN AHAL
IZATEKO.**

ANA DÍAZ **BERRIKUNTZA SOZIALAREN ARDURADUNA NSF-N PSIKOLOGIA SOZIALEAN DOKTOREA**

Gaur egun, zein da gakoa gazteen etorkizuneko lana hobetzeko?

Momentu honetan, lehenetsuna ematen diogu mekanismoak garatzen jakiteari, ezagutza berriak sortzen eta horiekin bat datozen ekintzak diseinatzen laguntzeko, mekanismoak gazteen enplegarritasuna sustatzera bideratuta egonik.

Zelan lortzen da ezagutza berriak sortzea gazteen enpleguaren inguruan, hain erronka zaila eta konplexua izan da?

Ezagutza berriak sortzeko, gure jardueratik, esperientziatik eta interes taldeekin ditugun harremanetatik ateratako informazioa erabiltzen dugu. Are gehiago, gaur egun hori behar-beharrezkoa bada ere, ez da nahikoa. Mundu akademikoko ezagutarik puntakoena ari gara txertatzen eta mundu horrek asko du esateko, besteak beste, gai hauen inguruan: etorkizuneko enpresa kultura, pertsonen kudeaketa etorkizuneko erakundeetan eta sozietateek zelan sortu beharko duten eskualdeko lehiakortasuna, giza faktorea eta gizarte ongizatea albo batera utzi gabe. Horrek guztiak gakoak eskainiko dizkigu gazteen enplegarritasunerako ingurune berria zelakoa izango den jakiteko. Hori da 4.0 Enplegarritasuna delakoaren oinarria. Erronka konplexua da, baina aldi berean

interesgarria, geurea bezalako erakunde batentzat.

Horrek lotura dauka konpetentzia berriekin?

Bai, badauka, baina ez hori bakarrik. Enplegarritasunaren zama ezin dugu jarri soilik gazteen gain eta konpetentzia zehatz batzuk izatearen gain. Enpresak zerikusi handia du prozesu horretan guztian. Enpresak ulertu behar du eragile erabakigarria dela eta, beraz, gazteak prestatu behar dituela, prestakuntza prozesuan gehiago inplikatu behar dela eta enpresaren kultura ingurune berrira egokitu behar duela. Ezin ditugu gazteak prestatu autonomoak, ekintzaileak edo sortzaileak izateko, gero kultura hierarkikoa duen eta sormen eta partaidetza prozesu oro baliogabetzen duen enpresa batean amaitu behar badute. Horrek ez dauka zentzurik, dena batera mugitu behar da. Enpresak horretan ari dira, baina oraindik aldaketa gehiago behar ditugu.

Orduan, zelan laguntzen die NSFk hurbiltzen zaizkion gazteei?

2016an, Europako hainbat enplegu zerbitzu aztertu ditugu, eta gazteak identifikatzeko eta ezagutzeko sistema berria jarri dugu martxan. Hain zuzen ere, sistema horrek laguntzen digu euren indarguneak, lan egoera eta motibazioarekin

lotutako beste alderdi batzuk identifikatzen. Profiling deitutako prozesu hori gaztea ezagutzeko tresna kuantitatiboak eta kualitatiboak edukitzean oinarritzen da, harekin modu pertsonalizatuan eta eraginkorrean lan egin ahal izateko.

Eta funtzionatzen du?

Sistema hori barne aldaketa handia eragiten ari da eta etorkizunera begira nondik jo behar dugun iradokitzen ari zaigu. Gainera, erronka horrek NSFn lan egiten dugunoi etengabe ezagutzak eguneratzea eskatzen digu.

Asebetetze, zerbitzuen gomendio eta kontratua lortzeko probabilitate indize onak erakusten dizkigute gazteentzako arretari buruzko datuek eta garatzen ditugun programek. Gustatuko litzaiguke gazte gehiagori arreta eskaini eta lagundu ahal izatea, eta testuinguru horretan ari gara lanean, 4.0 Enplegarritasuna izeneko sistema sortuz. Ohartzen gara gaur egun gazteak oso zaurgarriak direla lan merkatuaren aurrean, baina NSFn erabat konprometitzen gara kalitate handiko zerbitzu humanizatuak eskaintzen.



ISTORIOAK: LANKIDETZA

VIRGINIA OREGUI **GEROA PENTSIOAK BGA E ERAKUNDEAREN ZUZENDARI NAGUSIA**

Virginia, Geroa Pentsioak erakundearen zuzendaria da. Erakundea Gazte Enpleguaren Hamarkadarako Nazioarteko Kanpainaren babeslea da.

Kaixo, Virginia. Zergatik erabaki zenuen laguntza eta babesa ematea Gazte Enpleguaren Hamarkadarako Nazioarteko Kanpaina proiektuari?

Gazteei ziurtatzeko eta sinetsarazteko badagoela babestu eta sustatu beharreko erantzukizun sozial bat. Guk, beste neurri batzuen artean, babesletza horren bitartez gauzatzen dugu. Transmittitu behar diegu haiek direla etorkizuneko gizartearen oinarri. Aldaketarako malgutasuna, egokitzea eta prestakuntza eskatuko zaie, baina lana, aitortza eta errespetua jasotzeko eskubidea ere badute. Gure ikuspuntuaren arabera, esfortzua denon artean konpartitu behar dugu, bakoitzari dagokion ardura emanda, benetan GIZARTE eredu koherentea, kohesiona-tua, osasuntsua eta maila handikoa nahi badugu behintzat. Horregatik eskaintzen ditugu babesa eta laguntza. Gaur guri dagokigu, gazteei ekonomikoki laguntzeaz

gain, beharrezkoak diren balioak transmititzea etorkizunean ere printzipio horiei eusteko.

Zein da sektore pribatuaren zeregina eta zer ekarpen egin dezake gazteen enplegua hobetzeko?

Gobernuek, alderdi politikoei eta gizarte zibilak duten zeregina bezain inportantea da. Sektore pribatuaren ekarpena da, bere neurrian, sarbidea ematea, ekintzailetzari laguntza ematea eta gazteen esfortzua, dedikazioa eta erantzukizuna baloratzea. Alderdi kualitatiboen eta kuantitatiboen arteko orekari eustea da enpresen ardura, enpresak zuzentzen dituztenen ardura alegia.

Zelan uste duzue izan daitekeela horrelako ekimen bat erakundearen eta herrialdeen ekonomia eta gizarte eraldatzeko aukera eta eragile?

Ikusaraztea, bozgorailu izatea eta eragile bihurtzea ahalbidetzen dute era horretako ekimenek, kontzientzia hartu eta barneratu dezagun helburuak lortzeko gai garela, modu aktiboan eta parte hartzailean lan eginda.

LAGUNTZAILE INSTITUZIONALAK:



ENPRESA LAGUNTZAILEAK:



2016AN:

1.294 GAZTEK PARTE HARTU DUTE PROFILING PROZESUAN

HORREKIN LOTUTA - IKUSI WEBGUNEAN:

/ZER DA NOVIA SALCEDO FUNDAZIOA?/

2016AN, BESTE HAINBAT ISTORIO GERTATU DIRA, DESKRIBATUTAKOEN ANTZEKOAK.

1.418 GAZTEK ENPLEGAGARRITASUNA HOBETU DUTE NSF-REKIN.
694 ERAKUNDEK KONPROMISOA HARTU DUTE ENPLEGAGARRITASUNAREKIN.

PRESTAKUNTZA JASO DUTEN 675 GAZTEK LAN KONTRATUA LORTU DUTE.
GAZTEEN % 98K NSF-REN PROGRAMAK GOMENDATUKO LITUZTEKE.

867 GAZTEK LANAZ KANPOKO PRAKTIKAK EGIN DITUZTE ENPRESETAN.
323 ENPRESAK HARTU DUTE PRAKTIKETAKO GAZTE BAT EDO GEHIAGO.

1.021 GAZTEK JASO DUTE PRESTAKUNTZA NSF-N.
GAZTEEN % 92,8 POZIK NSF-REN PRESTAKUNTZAREKIN.

454 GAZTEK PARTE HARTU DUTE ORIENTAZIO PROZESU BATEN.
TUTOREENTZAKO TAILERRETAN PARTE HARTU DUTEN PROFESIOALEN % 100 POZIK.

94 GAZTEK EGIN DITUZTE NAZIOARTEKO PRAKTIKAK.
NAZIOARTEKO 45 ENPRESAK HARTU DITUZTE PRAKTIKETAKO GAZTEAK.

18 GAZTEK PARTE HARTU DUTE “ESEB” PROIEKTUETAN.
6 PROIEKTUK AURRERA EGIN DUTE.

717 IKASLEK IGARO DUTE EGUN BAT PROFESIONAL BATEKIN.
503 PROFESIOALEK ESKAINI DITUZTE PLAZAK.
29 IKASTETXE.

1.294 GAZTEK PARTE HARTU DUTE PROFILING PROZESUAN.
PRAKTIKETAKO GAZTEEN % 95,9K USTE DU GAITASUN PROFESIONALAK LORTU DITUELA.


582 ERAKUNDE BATU DIRA GAZTE ENPLEGUAREN HAMARKADARAKO KANPAINARA.
86 HERRIALDETA KO ERAKUNDEEK BABESTU DUTE KANPAINA.

200 PERTSONAK PARTE HARTU DUTE BYEF FOROAN.
100 GAZTEK ENPLEGAGARRITASUNA HOBETU DUTE, ENPLEGUAREN YIMBKANA EKITALDIAN.


1.000 PERTSONA BERTARATU DIRA NOVIASALCEDO SARIEN BANAKETARA.
39 HAUTAGAI NOVIASALCEDO SARIETARAKO.

6 LAGUNTZAILE INSTITUZIONAL.
21 ENPRESA LAGUNTZAILE.

VOLUMEN PRESUPUESTARIO BRUTO



FONDO BECAS GESTIONADOS POR NSF




ISTORIOAK: JASANGARRITASUNA

RESULTADOS
ECONÓMICOS DE
FUNDACIÓN NOVIA
SALCEDO


ISTORIOAK: JASANGARRITASUNA

RESULTADOS
ECONÓMICOS DE
FUNDACIÓN NOVIA
SALCEDO

TIPOLOGÍA DE INGRESOS



DISTRIBUCIÓN GASTOS



■ FONDO DE BECAS ■ GASTOS DE PERSONAL ■ SERVICIOS EXTERNOS ■ AMORTIZACIONES

NSFk urtero egiten du egoera ekonomikoen auditoretza, eta nahi duenak eskuragarri ditu eskatuz gero.
Euskadiko Fundazioen Erregistroan dago inskribatuta, 166 erregistro zenbakiarekin.

LANTALDEA:

Zuzendaria: Begoña Etxebarria

Mercedes Apella
Aitziber Barañano
Maidier Bilbatua
Leire Bujanda
Maidier Cascón
Itziar Casillas
Ana Díaz
Paloma Eizaguirre
Inge Elorriaga
Paul Etxenike
Iratxe Gamboa
Leticia Garay
Natalia García
Xabier Gómez
Alberto Granados
Iratxe Herboso
Oihana Ibarzabal
Arrate Lastra
David Lázaro
Andrea López
Elisa Mena
Mónica Muñoz
María Jesús Novo
Itziar Pineda
Josu Robredo
Sergio Salas
Laura Simón
Lorena Tejedor
Iratxe Torre
Begoña Varona

PATRONATUA:

Txomin Bereciartua - ohorezko presidentea
Luis Cañada Vicinay - presidentea
Emiliano López Atxurra - presidenteordea
Juan Luis Lascurain Argarate - presidenteordea
Alberto García Erauzkin - diruzaina
Emma Antolín Granet - batzordekidea
Maite Aranzabal Harreguy - batzordekidea
Nekane Balluerka Lasa - batzordekidea
Javier Chalbaud Rodríguez - batzordekidea
Javier Echenique Landiribar - batzordekidea
Alejandro Echevarría Busquet - batzordekidea
Benita Ferrero Waldner - batzordekidea
Fernando Querejeta San Sebastián - batzordekidea

**NOVIA
SALCEDO
TALDEA**

SARE HAUEN PARTAIDE GARA:

Erakunde gisa honako hauen partaide gara:

- Aptes
- Bilbao Metropoli 30
- Dema
- Kontsulta estatus berezia ECOSOCen
- Antonio Aranzabal Fundazioa
- Innobasque
- Gironako Printzesa sariko epaimahaikide
- Munduko Itunaren Espainiako sarearen batzorde exekutiboko kide
- EFQM erakundeko kide
- Nazioarteko Gardentasuna Espainia
- UNESCO Etxea

HORREKIN LOTUTA - IKUSI WEBGUNEAN:
[/TALDEA/](#)

GURI BURUZ

Novia Salcedo Fundazioa (NSF) irabazi asmorik gabeko erakunde pribatua da, eta 36 urte daramatza gazteei enplegarritasuna hobetzen laguntzen, lan duina lor dezaten giza garapenaren ikuspegitik, paradigma aldaketa gertatzen ari den ingurune global batean, enplegua ez baitago bermatuta.

Aurrea hartzeko eta lankidetzan aritzeko bokazioa izanik, uste dugu gazteei enplegu duina eskaintzea eragile garrantzitsua dela pertsonen, erakundeen, enpresen eta oro har mundu osoaren eraldaketa ekonomikoa eta soziala gauzatzeko.

EKARPENA EGIN NAHI DUGU...

2030ean, gazte guztientzat enplegua, babes soziala eta lan duina egon daitezen.

ETA HORRETARAKO...

- Berrikuntza eta balioak erabilia, aitzindariak gara enplegarritasuna eta lan duina lortzen, ikuspegi global eta lokal batetik.
- Berrikuntza sozial aplikatuaren arloan ikerketa eta eza-gutza garatzen ditugu, berrikuntza soziala zabaltzeko eta bultzatzeko eragile gara, eta ikerketa erabil daitezkeen produktuetara bideratzen dugu.
- Gazteen inplikazioa lortzen dugu eta alor politikoan, sozioekonomikoan eta kulturean garrantzitsuak diren eragileak mobilizatzen ditugu, euren lankidetzak aktiboak eta gizartearen kontzientzia lortzeko.



GURE ISTORIO KONPARTITUEN PARTE IZAN NAHI? JARRI HARREMANETAN ETA IKUSIKO DUGU ZELAN EGIN DEZAKEGUN



CAMPO VOLANTIN PASEALEKUA 24, 1 - 48007
BILBO (ESPAINIA)
TEL. 94 425 59 59
WWW.NOVIASALCEDO.ES
f t in y
INFORMACION@NOVIASALCEDO.ES



enplegua, ekintzailletza, etorkizuna

ISTORIO KONPARTITUAK

2016KO MEMORIA

GURE ISTORIO KONPARTITUEN PARTE IZAN NAHI?
JARRI HARREMANETAN ETA IKUSIKO DUGU ZELAN EGIN DEZAKEGUN



PASEO CAMPO VOLANTÍN 24, 1º - 48007
BILBAO, (SPAIN)

TLFNO. 94 425 59 59

WWW.NOVIASALCEDO.ES



INFORMACION@NOVIASALCEDO.ES